

BOLUNTARIOTZAREN BARNEKO ESTATUTUA




BizkaiaGara

Eginez izan · Tiempo de acción



BizkaiaGara-k egina

Lan hau Creative Commons lizentziapean dago:



CC BY NC SA (Aitorpena - Ez komertziala - Partekatu berdin): Lizentzia honek aukera ematen die beste batzuei banatzeko, birnahasteko, ukituak emateko eta zure obratik abiatuta modu ez-komertzialean sortzeko, betiere kreditua ematen badizute eta sorkuntza berriak baldintza beretan lizentziatzen badituzte.



Sarrera	4
Zer da boluntariotza?	5
Zer da boluntariotzako erakunde bat?	6
Boluntariotzaren barneko estatutua	7
1.- Definizioa	
2.- Arau-esparrua	
3.- Estatutua egiteko kontuan hartu beharreko alderdiak	
4.- Eduki gomendagarria	
4.1.- Erakundearen aurkezpena	
4.2.- Boluntariotzaren definizioa	
4.3.- Boluntariotzak zer ekarpen egiten duen	
4.4.- Erakundeak zer ekarpen egiten duen	
4.5.- Boluntarioaren eskubideak eta betebeharrak	
4.6.- Profila eta eginkizunak	
4.7.- Onartzeko eta baztertzeko irizpideak	
4.8.- Lankidetzeta-hitzarmena	
5. Dokumentuaren formatua	
Boluntariotzako Erakundeen Errolda	16



Sarrera

Administrazio publikoek boluntariotzaren jarduera arautzea ahalegin bat da garapen sozial solidario eta demokratikoa lortzeko funtsezkoa den jarduera bat egituratzeko. Alde batetik, sarbidea erraztu nahi du jarduera sustatzeko dauden baliabideetarako, gutxieneko jarraibideak eta beharrezko bideak ezarriz, eta, bestetik, eskubidea ziurtatu nahi du herritarrek parte har dezaten, aske eta berme guztiekin.

Helburu horiek lortzeko legediak sartzen duen tresnetako bat da boluntariotzaren barneko estatutua. *Hurrengo orrialdeetan, ahalegina egingo dugu azaldu eta ulertzeko estatutu hau zer den, zer esan nahi duen eta zer abantaila dakarkien nola erakundeei hala boluntario gisa parte hartu nahi duten pertsoneri.* Jakingo dugu zein den boluntarioek erakundeetan duten parte-hartzea arautzen duen arau-esparrua, jarraibideak emango ditugu estatutua prestatzeko eta barneko partaidetza hobetzeko, eta, inplizituki, saiatuko gara sentibilizatzen boluntariotza egituratzeak duen garrantziaz, funtsezkoa baita erakundearen funtzionamendu onerako.



Zer da boluntariotza?

Boluntariotza gizartean parte hartzeko modu bat da, eta ezaugarri hauek ditu:

- **Librea** izan behar du, parte-hartzaileen ekimenetik sortua, eta nahita eta borondatez gauzatu, betebehar pertsonalen edo juridikoen emaitza izan gabe.
- **Autonomoa** izan behar du, botere publikoekiko eta interes ekonomikoekiko independentea.
- **Bidezkoa** izan behar du, giza eskubideak errespetatuz egina.
- Beste pertsona batzuekin batera **antolatu** behar da, irabazi-asmorik gabeko erakunde egituratu batean, eta lan planifikatua egin behar du taldean.
- **Solidarioa** izan behar du, pertsonen eta gizartearen aldekoa, eta eraldatzeko asmoz sortua.
- **Eskuzabala** izan behar du, helburu partikularrik gabea eta interes orokorra jomuga izanda.
- **Doakoa** izan behar du, ordainsari materialik gabea, lan- edo merkataritza-harremanik gabea.
- **Osagarria** izan behar du; ez ditu ordezkatzeko ordaindutako zerbitzu profesionalak, ez eta instituzio publikoen jarduna ere.

Horrenbestez, boluntariotzat joko dugu irabazi-asmorik gabeko erakunde autonomo batean guztion onerako lan solidarioa egiteko denbora doan eta eskuzabaltasunez ematea erabakitzen duen pertsona oro.



Zer da boluntariotzako erakunde bat?

Boluntariotzako erakundea da **irabazi-asmorik gabeko** erakunde bat, honelako egitura formala duena...

... **printzipio solidarioetan** oinarritzen dena, eta giza eskubideak errespetatzen dituen;

... botere publiko eta pribatuekiko **autonomoa**;

... kideen **parte-hartze askea eta doakoa** errazten duena;

... **interes orokorra** bilatzen duena, dela ekintza eraldatzaile global batetik, dela arazo sozial jakin batzuetan esku hartuz;

... ordaindutako profesionalen ekintza eta instituzioen erantzukizun publikoa **osatzen** dituen;

... **izaera pribatua** duena, helburu komun baten inguruan, irauteko borondatearekin, batzen diren partikularren ekimenetik sortua;

... **boluntarioek osatua**, edo jardueretako batzuk egiteko boluntarioak dituen.



Boluntariotzaren barneko estatutua

1.- DEFINIZIOA

Boluntariotzaren barneko estatutua da **boluntarioek erakundearen duten parte-hartzea arautu, parte hartzeko moduaren oinarri diren printzipioak jaso eta arauak ezarri beharko lituzkeen tresna**. Funtsezko elementua da erakundearentzat, honako hauek egin baititzake:

- Zer boluntariotza-kontzeptu eta -ereduren alde egiten duen definitu.
- Boluntarioak nor diren eta zer eginkizun duten zehaztu, eta zer erantzukizun hartzen duten beren gain, eta boluntarioek erakundearekin eta erakundeak boluntarioekin dituen eskubideak eta betebeharrak zehaztu.
- Boluntarioak egituraren kokatu.
- Boluntarioak sartzeko prozesua eta prozedura definitu, parte hartzeko irizpideak, baldintzak eta mekanismoak eta, orobat, erakundearen gainerako figurekiko harremanen esparrua zehaztu.

Boluntariotzaren barneko estatutua da erakundearen barruan boluntarioak identifikatzen dituen eta identitatea ematen dien elementua.

Komeni da boluntario gisa sartu nahi duten pertsonen aurkeztea, ideiekin eta egiturekin, programekin edo instalazioekin egiten den bezala.



2.- ARAU-ESPARRUA

Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legeak 8. artikulua 4. puntuko A letran ezartzen duenez, boluntarioak dituzten erakundeek betebeharrak hau dute: “Erakundearen boluntariotzaren barneko estatutua egitea, non, gutxienez, boluntarioak onartzeko eta baztertzeko irizpideak eta haien eskubideak eta betebeharrak ezarriko diren”.

Legediak ez du zehazten estatutu horrek nolakoa izan behar duen; soilik adierazten du honako hauek jaso beharko dituela, gutxienez: boluntarioak onartzeko eta baztertzeko irizpideak eta haien eskubideak eta betebeharrak.

Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorren funtzionamendu-araudia arautzen duen EAEko 169/2000 Dekretuak ezartzen duenez, erroldan inskribatzea eskatzeko estatutua aurkeztu behar da (4. artikulua, 1. puntua, M letra).

3.- ESTATUTUA EGITEKO KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Ez da izapideak egiteko formalismo bat; **erakundearen identitate-ezaugarrietako bat da.**
- Ezinbestekoa da erakunde osoaren inplikazioa.
- **Erakundea osatzen dutenek ezagutu eta onartu** behar dute, eta batzar orokorrean onartu behar da.
- Ez ditu erakundearen estatutuak ordezkatzeko eta ez ditu bere eskumeneko aldeak arautzen, baina elementu berriak sar ditzake horiek zati batean aldatzeko.



- Ez da boluntariotzari erreferentzia egiten dion leku bakarra; izan ere, boluntariotza ideietan, estatutu orokorretan, programa eta proiektuetan, kudeaketa- eta kalitate-planetan, barne-erregelamenduetan, eta abarretan ere agertzen da.
- **Komeni da dokumentu bereizia izatea**, baina kontraesanean sartu gabe estatutu orokorren espirituarekin eta edukiarekin, eta erakundearen gainerako dokumentuekin.
- **Funtsean, boluntarioei zuzenduta egongo da**, eta ez da beharrezkoa erakundeak boluntarioekin egingo dituen ekintza guztiak zehaztea (erakundearen Boluntariotza Plana); aski da boluntarioak erakundearen sartzeko jakin behar duena.
- Beste edozein elementu ideologiko bezala, aldian-aldian berrikusi behar da.

4.- EDUKI GOMENDAGARRIA

4.1.- Erakundearen aurkezpena

Erakundearen deskribapen laburra: eginkizuna eta helburuak, printzipioak eta balioak, egitura eta partaidetza-organoak, etab.

4.2.- Boluntariotzaren definizioa

Garrantzitsua da erakundeak zehaztea zer boluntariotza-mota sartuko duen, zer zeregin egiteko, zer eginkizunekin eta zer programa edo jardueratan. Komeni da aipatzea boluntariotzari esleitutako lanpostuak eta bazkide, profesional, zuzendaritza-kargu eta abarrekin dituzten harremanak. Ildo horretan, adibidez, boluntario izaera bateragarria da bazkide izatearekin eta gobernu-lanak egitearekin; hala ere, ordainsariari lotuta daudenek ezin dituzte funtzio berberak bete boluntario gisa.



4.3.- Boluntariotzak zer ekarpen egiten duen

Jaso behar dira boluntariotzak erakundearentzat dituen alderdi aberasgarriak, hala ikuspegi kontzeptual edo ideologikotik, nola lan zehatzak egiteko. Esaterako, programak kudeatzeko eta garatzeko zereginak, erabiltzaileei laguntzea, ideiak eta edukiak ematea, prestigioa eta koherentzia ematea, erakundea aintzatestea, etab.

4.4.- Erakundeak zer ekarpen egiten duen

Aurreko puntuan bezala, erakundeak boluntarioei emango dizkie parte-hartze indibidual eta kolektiborako guneak, erantzukizun soziala gauzatzeko tresnak, haien lanaren aitorpena, informazioa, prestakuntza-programak, eta abar.

4.5.- Boluntarioaren eskubideak eta betebeharrak (nahitaezkoa)

Lehen aipatutako legeak gutxieneko eskubide eta betebeharrak ezartzen ditu, eta zabaldu egin daitezke, erakundearen irizpidearen arabera. Horiek guztiak pertsonaren eta erakundearen artean sinatu beharreko konpromiso-akordioan jaso behar dira (169/2000 Dekretuaren II. eranskina), dela esplizituki, dela boluntariotzaren barneko estatutua erantsita.

Ekainaren 25eko 17/1998 Legean jasotako eskubideak:

- Erakundean aktiboki parte hartzea, erakundeari buruzko informazioa jasoz, eta, bereziki, haren helburuei, egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa, eta, orobat, erakundearen partaide-tza-organoak eratzeaz eta horien parte izateaz.



- Esku hartzen den programak edo proiektuak diseinatzen, lantzen, gauzatzen eta ebaluatzen laguntzea, eta aukera izatea, boluntario gisa, eragiten dioten erakundearen alderdiei buruzko iritzia emateko.
- Boluntario gisa betetzen duen zereginak behar duen laguntza teknikoa, giza laguntza eta prestakuntza jasotzea, eta orientazioa jasotzea boluntario gisa baldintza onenak betetzen dituen jardueri buruz.
- Aseguru baten estaldura jasotzea boluntario gisa aritzeak hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalte-galerengatik, arau bidez ezartzen diren ezaugarriekin eta kapitalekin.
- Konpentsazio ekonomikoa jasotzea bere jardueran egindako gastuengatik, betiere, hala ezarri bada boluntarioaren eta erakundearen artean hitzartutako baldintzetan, eta akordio horretan aurreikusitako mugen barruan.
- Jarduerak ingurunerik hurbilenean garatzea, egin beharreko programek edo proiektuek aukera ematen duten neurrian.
- Tratu ez-diskriminatzailea eta bidezkoa jasotzea, bere askatasuna, duintasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuz.
- Bere jarduera segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egitea, jardueraren izaeraren eta ezaugarrien arabera.
- Egindako ekarpen sozialarekiko errespetua eta aintzatespena lortzea.
- Aldez aurretik jakinarazita, boluntario izateari askatasunez uztea.
- Lege honetatik eta ordenamendu juridikoko boluntariotzari buruzko gainerako ataletatik eratorritako gainerakoak.



Ekainaren 25eko 17/1998 Legean jasotako betebeharrak

- Ahal duten eta nahi duten neurrian, erakundeari laguntza aktiboa ematea, parte hartuz eta harekin lankidetzan arituz.
- Erakundearekin hartutako konpromisoak betetzea, haren helburuak eta araudia errespetatuz.
- Hartzen diren segurtasun- eta higiene-neurriak betetzea.
- Agintzen dizkioten zereginak behar bezala betetzea eta erakundeko arduradunek ematen dizkioten jarraibideak betetzea.
- Erakundeak aurreikusitako prestakuntza-jardueretan parte hartzea, ematen diren zerbitzuen kalitateari eusteko beharrezkoak direnean.
- Borondatezko jarduera egitean jasotako eta ezagututako informazioaren konfidentzialtasuna gordetzea.
- Jardueran zuzentzen dituen pertsonen edo pertsona-taldearen eskubideak errespetatzea.
- Boluntarioaren egiaztatzea eta erakundearen bereizgarria behar bezala erabiltzea.
- Oro har, borondatezko ekintza legearen 4. artikuluan jasotako printzipioen arabera egitea.
- Eskura jartzen zaizkion baliabide materialak zaintzea.



4.6.- Profila eta eginkizunak

Boluntarioek era askotako premiei ematen diete erantzuna, eta, beraz, kasu bakoitzerako behar diren ezaugarriak zehaztu beharko dira (adina, gaikuntza, egonkortasun pertsonala...).

Boluntario izatea ez da elkarte baten barruan zeregin zehatz bat egitea; askoz gehiago da. Interesatzen zaigun proiektu global batekin bat egitea da, eta, ahal dugun neurrian eta gure interesen eta gaitasunen arabera, laguntzea, hartzen gaituen elkartearen beharretan. Denok egin dezakegu lan erakundeekin, modu askotan eta beti ados jarrita.

Nabarmendu ditzagun zeregin nagusietako batzuk.

- Pertsonen oinarrizko premiei erantzutea.
- Lagun egitea.
- Harrera, informazioa eta aholkularitza.
- Hezkuntza-jarduerak, hala nola eskola- eta okupazio-laguntza edo trebetasun sozialak.
- Sentsibilizazio eta salaketa sozialeko ekintzak.
- Administrazio-, antolaketa- eta mantentze-lanak...

4.7.- Onartzeko eta baztertzeko irizpideak (nahitaezkoa)

Erakunde bateko bazkideek elkartearen estatutuetan ezarrita dituzte onartzeko eta baztertzeko irizpideak. Boluntariotza, ordea, arauketa horretatik kanpo geratzen da, eta, beraz, dokumentu honi erreparatu beharko zaio. Erakundeek askatasuna dute araudi hori erabakitzeke,



baina inoiz ezin dute kontraesanik izan legean eskubide eta betebeharrei buruz xedatutakoarekin eta legearen gainerako alderdiekin. Onartzeko irizpideen artean, honako hauek aipa daitezke: profil jakin batzuk betetzea, dedikazioa... Baztertzeko arrazoi gisa, nabarmena da, esaterako, konpromiso-akordioan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

4.8.- Lankidetzeta-hitzarmena

Adierazi dugun bezala, Boluntariotzaren Legeak -8. artikuluko 3. puntuan- eskatzen du lankidetzeta- edo konpromiso-akordio bat sinatzea boluntarioaren eta erakundearen artean. Bere zeregina da bien arteko harremana arautzea, hau da, zein baldintzatan ezartzen den, zein baldintzapean, zein jardueratarako eta alderdi bakoitzak zein betebeharrak izango duen. Era berean, baliozkotasun- eta berrikuspen-epeak ezarriko ditu. Akordioak hainbat elementu finkatzen ditu, baina horrek ez du eragozten elementu berriak sartzea, betiere, kontraesanean ez badaude legean azaldutakoarekin.

5.- DOKUMENTUAREN FORMATUA

Araudiak ez du inolako formatu-motarik ezartzen Boluntariotzaren Barneko Estatutuaren dokumenturako, eta, praktikan, erakundeek hainbat formatu erabili dituzte: elkartearen estatutu orokorren antzekoa den testu artikulatua; boluntariotzaren gutuna, manifestua edo dekalogoia; triptikoa edo liburuxka; eta abar.

Dokumentu honen formatuan, garrantzitsuena ez da zer dokumentu-mota den, baizik eta aukeratzen dugun formatua ahalik eta eskuragarriena izatea boluntarioentzat edo iritsi nahi dugun pertsonentzat. Beraz, gomendagarria da formatu arina eta irakurtzeko atsegina izatea, eta edukia argia, erraza eta zuzena izatea.



Boluntariotzako erakundeen errolda

Erregistro honek bildu nahi ditu beren helburu sozialak betetzeko boluntarioak dituzten erakundeak.

Errolda horretan agertzeak –dagokion elkarteen edo fundazioen erregistroan inskribatu ondoren egin behar da– aukera emango du boluntariotzako erakundeentzat soilik proposatutako dirulaguntza- eta sustapen-programetan sartzeko. Era berean, gaitasuna ematen du Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan parte hartzeko.



BizkaiaGara

Eginez izan · Tiempo de acción



www.bizkaiagara.eus

info@bizkaiagara.eus

